

3. Euskararen ahaideei buruzko hipotesiak

1. Giza-hizkuntzaren sorrera eta euskararen jatorria.— 2. Euskararen inguruko ahaidetasun hipotesiak

BIBL Lakarra (2018: 35-78); Mitxelena 1964a: 161-168; Trask 1995.

1. Giza-hizkuntzaren sorrera eta euskararen jatorria

1.1. Zertan dago gaia?

Euskara munduan diren hamaika hizkuntza isolatuetakoa bat da, hots, jatorri bereko beste hizkuntza batekin edo batzuekin familiarik osatzen ez dutenetakoa. Beraz, ez da Campbell-ek (2011) “sailkagabe” deitzen dituen horietakoa, hots, aztertu ezagatik sailkatu gabe dirautenetakoa, zeren eta orain artean, lan asko egin arren, ezin izan da frogatu ezagutzen ditugun hizkuntza hil eta bizietatik bat ere euskararen ahaidea denik. Campbell beraren ustez, ordea, lana ez da alferrikakoa izan:

Baliteke norbaitek esatea ez dugula ezer aurreratu euskararen ahaideen bila. Hala eta guztiz ere, kontrakoa pentsa liteke, alegia, nahikoa aurreratu dugula (berr)egiaztatzen euskararen ahaide urrunen bat proposatzen duten hipotesi ezagunen bitartez ezin izan dela inolako lotura genetikorik frogatu —hipotesiok ebaluatzen aurreratu dugu, bai eta hizkuntzen arteko lotura genetikoa frogatzeko zein metodo erabili behar diren ulertzen ere—. Espero dezagun azkenik ere ulertu izana ezen ez dela beharrezkoa hizkuntza guztiak halako taldetan sailkatzen tematzea —munduan hizkuntza isolatu asko daude, hizkuntza-familia guztien herena (Campbell 2011; nik itzulia).

Hamaika aldiz saiatu dira —eta saiatuko ere dira— euskararen jatorria non den erakusten edota haren ahaideak bilatzen munduan barrena. Honetan japonierak omen ditu mundu-markak hautsi, baina euskara ez da atzerago gelditu. Trask-ek (1995) aipatu ahaidetasun hipotesietara eta egiletara mugaturik ere, honako norabide nagusi hauek agertzen zaizkigu:

- “Europa zaharra” (*Old European*): Theo Vennemann (1994, etab.)
- Indoeuropea: Tovar (1954, etab.), eta berriki Blevins (2013, esk.)
- ✓ Zeltera (Bullet 1754-1760, etab.cf. Igartua 2009).
- Iberiera: Román del Cerro (1993).
- Minoera, etruskera, piktoera, sumeriera
- ✓ Minoera (Grezia): Gordon (1931): Bi idazkera daude A lineala (dezifragabea, sailkagabea) eta B lineala (1950tik aurrera dezifratua denetik greziera arkaiko bat dela erabaki da).
- ✓ Etruskera (Italia): Ellis (1886) eta Esandi (1946). Haren corpusa 13.000 inskripzioz eta latinean utzitako mailegu dozena batzuek osatua da, toponimiaz gain.
- ✓ Piktoera (Eskozia): Guiter (1968). Corpusa onomastikak bakarrik osatzen du.
- ✓ Sumeriera (Irak; isolatua): Löpelmann (1968) eta Bengston (1991). Hainbat idazkiz osatutako corpusa du.
- Kaukasoko hizkuntzak: Schuchardt (1913), Uhlenbeck (1923, etab.), Trombetti (1925), Dumézil (1933), Lafon (1933, etab.), Vogt (1942, etab.), Bouda (1948, etab.).

- Akitaniera: Luchaire (1877, Michelena (1954) eta Gorrochategui (1987, etab.). Ahaidetasuna frogatua da, nahiz ahaidetasun maila (euskararen arbaso zuzena den ala zeharkakoa, hots, haren ama ala izeba) ez.
- Afrikako hizkuntzak: Schuchardt-ek (1913) Afrikako dozena bat hizkuntzarekin konparatu zuen, guztiz bereberearekin. Anderson (1988), Mukarovsky (1963-64, etab.).
- Makrofamiliak: ikerlerro honen barruan batez ere dene-kaukasiarra delakoarekin izan da konparatua euskara.

Zerrenda luze (baina ez oso) honetatik, akitaniera alde batera utzita (ik. 6. gaia), ez da sekula frogatu euskara ezein hizkuntzarekin genetikoki lotuta dagoenik. Ez dugu esan nahi ahaidetik izan ez zuenik, ezta ez duenik ere. Baina, ikusiak ikusirik, ziur xamar gaude izatekotan oso aspaldiko ahaidetasuna izan behar dela: baldin antzina ahaideak izan bazituen, anitz mendetan zehar Europan barrena zabaldu zen hizkuntza indoeuroparren (IE) uholdeak betiko isildu bide zituen; eta, baldin eta oraindik ere ahaideren bat bizirik balu, ahaidetasuna hain liteke aspaldikoa denboraren aldetik eta urrutikoa espazioaren aldetik, non erlazio horren aztarnak antzemanekin bide baitira gaurko metodo eraginkorren arabera ere. Hortaz, baliteke beharko genituzkeen frogak betiko galduak izatea (balizko ahaideak lorratzik utzi gabe edo lorratz eskasak utzita hilak izan daitezke, agian), edo hain desitxuratuta egotea, non ez garen gauza beren arteko erlazioa sumatzeko.

Hizkuntza isolatuen sailean geratuko da, bada, aurkikuntza berririk egin ezean edota metodoak indartsuago bihurtu ezean. Hau baieztatu ahal izateko, lehenik eta behin metodoa zertan den eta zertan ez den ulertu behar dugu.

1.2. Giza-hizkuntzaren sorrera

Euskararen ahaideak denboran eta espazioan kokatzeak dakarren arazo gaindiezin horren neurri erraldoia hobeto uler dezagun, komeni da hasieratik hastea, alegia, giza-hizkuntza (mintzamina) noiz eta nola sortu zen galdetzetik. Adituak izan ezean, ez dago azken-azken hipotesien berri ematerik, baina kontuak azken urteotan nondik joaten ari diren jakiteko lain dena behintzat buruan izatea lagungarri izango zaigu.

Giza-hizkuntza noiz eta nola sortu zen galdetzerakoan, zehatzago bi galdera hauek ditugu buruan: batetik, *homo* generoaren zein unetan sortu zen giza-hizkuntza? eta, bestetik, behin bakarrik sortu zen, hala behin baino gehiagotan?

Bigarrenetik hasiko gara. Galderak iradokitzen duenez, ez dakigu giza-hizkuntzaren sorrera behingo gertakaria izan zen, ala behin baino gehiagotan sortu zen, munduko bazter ezberdinetan. Honegatik, bi teoria erabiltzen dira galderari erantzuteko: monogenesia eta poligenesia.

MONOGENESIAK defendatzen du giza-hizkuntzak oro antzina-antzinako hizkuntza bakar batetik sortuak direla, giza-hizkuntza batez mintzatu zen lehen giza-taldeak zerabilen hizkuntza hartatik, hain zuzen. Beraz, munduko hizkuntza guztiak azken batean elkarren ahaide lirateke teoria honen arabera, zuhaitz bakar baten adarrak edo adaskak. Hau da erantzun klasikoa, ezagutza errebelatuak ere ematen duena munduko hainbat kulturatan: Jainkoak edo jainkoek sortua litzateke lehen hizkuntza hura. Bestalde, *Ockhamen labana*-ren hatsarrearen arabera (hots, daturik ezean hipotesik errazena hobetsiz), hauxe da azalpenik bakunena ere. Puntu asko ditu bere alde, beraz, eta hainbatetan jakintzat emanda aurkituko dugu.

POLIGENESIAK, berriz, defendatzen du giza-hizkuntza giza-talde ezberdinek garatu zutela leku ezberdinetan eta, beraz, giza-hizkuntzak antzina-antzinako hizkuntza ezberdin

haietatik datozela; beste hitz batzuetan esanda, munduko hizkuntzak ez lirateke familia bakar batekoak, baizik eta familia bat baino gehiago leudekeela: ez legokeela hizkuntza-zuhaitz bakar bat, hainbat baizik. Hipotesi konplexuagoa da, baina jarraitzaileak irabazten doa azkenotan, *homo* generoaren historia konplexuago bihurtuz doan heinean.

Poligenesiaren teoria bera gero eta konplexuago bihurtzen ari da, ez bakarrik geografikoki (leku batean baino gehiagotan sortu), baizik eta baita diakronikoki ere (giza-hizkuntzak baino lehenagoko aurre-hizkuntzak ere kontuan izan).¹ Gaiaren ikuspegi honen laburpena dugu Johanna Nichols diakronista ezagunaren hitzotan:

Laburbildurik, Hizkuntz Geografiak eta Paleodemografiak erakusten digute aurre-hizkuntza eta AURRE-HIZKUNTZA familia ugarietatik sortu zela giza-hizkuntza, gutxika-gutxika sortu ere. Ez dago antzina-antzinako giza-hizkuntza bakar bat. Baldin eta aurre-hizkuntzaren aspaldiko aitzindariaren bat hiztun talde bakar batean erabilia izan bazen, komunikazio-sistema hura ez zatekeen giza-hizkuntza izango eta haren zeinuak ere ez ziren hitzak izango. Ondorio hauek ez datoz berreraiketarik, ezta tipologia maiztasunak kalkulatzetik ere, baizik eta *hizkuntz geografian*, *hizkuntz aniztasunean* eta *hizkuntz jabekuntzan egindako ikerketetatik*. Gogoeta hauetatik ateratzen den beste ondorio bat: giza-hizkuntzaren hasieratik hasi eta ondoko 100.000 edo 200.000 mila urteetan, litekeen tipologia eta familia aniztasunetik gutxi gauzatu dute giza-hizkuntzek; gizaki modernoak eta euren hizkuntzak hedatu zirenean hil ziren aurre-hizkuntzak milioi bat urtez joan ziren aldatzen eta zatitzen, eta askoz ere bata bestetik ezberdinago bide ziren (Nichols 2012: 572; nik itzulia; etzana nirea).

Nichols-en pasarteak gure lehendabiziko galderari eman dakizkioken erantzun batzuk aurreratu baditu ere, hasieratik hasiko gara, galdera hura berriro formulatzetik: *homo* generoaren zein unetan sortu zen giza-hizkuntza?

Besteak beste, bi zientzia-alorretan egin dira lehendabiziko aurrerapenak, hemen aztertuko ditugun bakarrak: Paleoantropologian eta Genetikan.

PALEOANTROPOLOGOEN aukera bat baino gehiago dituzte giza-hizkuntzaren sorrera denboran kokatzeko edo, bestela esanda, giza-hizkuntza batez mintzatu zen lehen hominidoa zein izan zen erabakitzeke, duela 2'4 milioi bat urtetik duela 40.000 bat urtera bitarte zabalean zehar.²


- ✓ *Homo habilis*: duela 2,4-1,8 milioi bat urte bitartean bizi izan zen, Pleistozenoaren hasieran eta erdialdean.
- ✓ *Homo erectus*: duela 1,8 milioi bat urtetik eta 70.000 bat urte bitartean. Afrikatik munduan barrena hedatu zela uste da.
- ✓ *Homo heidelbergensis* (Pleistozeno Ertaineko *hominidoa*): duela 800.000 bat urtetik eta 30.000 bat urtera bitartean. Afrikan, Europan eta Asiako mendebaldekoa.
- ✓ *Homo sapiens*: Haren aztarna zaharrenak “Kibish-eko gizakiak” dira (Etiopia), eta 195.000 urte dituzte. Eztabaida omen dago Afrikatik hedatu zen ala jatorri antz izan zituen. Genetistek erdibideko jarrera bat proposatu dute: Afrikatik sortu bide bazen ere, beste hominido espezie batzuen gene nahasketa mugatu bat luke (neardenthalak, denisovarrak, etab.).

¹ “Aurre-hizkuntza” erabiliko dugu giza-hizkuntzaren aurreko hizkuntzak izendatzeko; gogoratu “aitzinhizkuntza” hizkuntza familia baten arbaso berreraikia (hots, hipotetikoa) dela. “Giza-hizkuntza”, bere aldetik, jadanik hizkuntza historikoen ezaugarri guztiak dituen hizkuntzari deritzagu.

² Non begiratu eta han beste zenbaki batzuk aurkitu *homo* hauek datatzeko. Honek ez gaitu gehiegi arduratu behar, hurbilketa xume bat baino ez dugunez egin behar ehun milakako eta miloikako magnitude erraldoi hauetan zehar. Nire iturria gehienbat MacLarnon (2012: 234) da.

- ✓ *Cro-Magnon (Homo sapiens sapiens)*: Duela 40.000 urte, Goi Paleolitoan; Europan (Italian, Britainian) aurkitu dira aztarna zaharrenak. Europako lehen gizaki modernoa da, Aurignac kulturarekin lotua, batez ere labar-arteagatik ezaguna.

Nabarmena da giza-hizkuntza batez mintzatu ahal izateko gorputz-atal zenbaiten garapen ebolutiboak behar izan direla, burmuinarenak eta artikulazio-organoenak, besteak beste; izan ere, *homo* generoaren garapenean zehar burmuina handituz eta gaituz joan zen, eta artikulazio-organoak ere hartara egokituz. Paleoantropologoak gai dira gorde diren burezurretatik eta bestelako hezurretatik ondorioztatzeko nolakoak lirakeen organo horiek *homo* generoaren une ezberdinetan. Giza-hizkuntzaren hotsak artikulatu ahal izateko beharrezkoak izan ziren aldaketetan, honakoak sartzen dira: laringearen jaitziera (goitik behera bertikalago egitea), prognatismoaren laburtzea (i.e., muturra laburtzea) eta honen ondorizko ahosabaiaren igoera, eta hioide hezuraren mugikortasuna; txinpantzearen eta gizakiaren ondoko irudiak elkarrekin konparatuz igar daiteke hori:



Aldaketa horiek, aski garbiki, *Homo erectus*-ak bazituen (duela 1,8 milioi bat urte), eta are ziurragotzat jotzen da Atapuerkako *Homo antecessor*-aren kasuan (duela 800.000 bat urte). Bataz beste, beraz, giza-hotsak artikulatzeko gaitasuna duela milioi bat urte koka liteke, baina ez dago garbi gaitasun hori noiz gauzatu zen mintzamenaren bitartez: bestela esanda, gorputz-atalak hartarako prestatuak izateak ez du esan nahi nahitaez mintzatu mintzatzen zirenik.

Bestalde, burmuinaren garapena duela 200.000 mila bat urte kokatzen dute, baina galdera bera da: buruko gaitasun hori noiz aktibatu zen giza-hizkuntza sortzeko?

Genetistek, beren aldetik, 90eko hamarkadan lehenengoz hizkuntzarekin zuzenean loturik dagoen gene bat identifikatu zuten: FOXP2 izenekoa. Dударik gabe, hizkuntza bezalako konplexutasun bat ez du gene bakar batek gobernatzen, baina aurkikuntza berez oso garrantzizkoa da, hain zuzen ere FOXP2 genea artikulatzeko gaitasunarekin lotua baita. Hala bada, kalkulatu dute gene honek mutazio garrantzizko bat izan zuela duela 100.000 bat urte, eta mutazio honen garapena duela 50.000 bat urte gertatu zela.

Laburbilduz, hominidoek duela 800.000 bat urte artikulatze-organo egokiak zituzten, duela 200.000 bat urte burmuina egokitu zen, duela 100.000 bat urte artikulazioarekin lotutako mutazio garrantzizko bat izan zen eta duela 50.000 bat urte mutazio horren garapena gertatu zen. Baina, zehatzagoak izan gaitezke? Nola jakin zehazki noiz koka genezakeen giza-hizkuntzaren sorrera?

Hipotesi gisa FOXP2 genearen mutazioaren datuak kulturaren izandako aldaketa esanguratsurekin lotu dira, beharbada hizkuntza eta kultura mutazio beretik jaiotzeko direla: izan ere, garai bertsuan pentsamendu abstraktu konplexuago baten —sinbolismorako gaitasunaren— adierazpena diruditen garaien kulturak igartzen dira gizakiek utzitako aztarnetan: portaera artistikoaren lehen lekukotasunak duela 75.000 bat urteko aztarnetan aurkitu dira (41 barraskilo maskor zulatu, iduneko bat osatu izan balute bezala; Martínez Mendizabal 2004); duela 40.000 bat urtekoetan lehen grafismo eta adierazpen erabat sinbolikoak: haitzuloetako margoak (Santimamiñekoak, konparazio baterako, duela 13.000 urtekoak dira) eta grabatuak (Zestoako Erlaitzen duela 22.000 eta 15.000 urte bitartekoak aurkitu ziren iaz).³ Aspaldiko aztarna hauekin konparaturik, ordea, oso modernoak baino ez dira giza-hizkuntzaren beraren lehenengo lekukotasun zuzenak, duela 5.500 bat urtekoak baino ez dira eta lehen idazkerak.

Giza-hizkuntza ez da hizkuntza bakarra: gero eta garbiagoa da animalia askok badutela “hizkuntza” moduren bat. Hala ere, giza-hizkuntzak badu abstrakzio eta sinbolismorako neuriz gainera gaitasun bat, animalien hizkuntzarik konplexuenek ere ez bide dutena.⁴ Honek pentsarazten digu giza-hizkuntzarik ez zuten aurreneko hominidoek ere bazuketela hizkuntzarik (i.e., gorago aipatu ditugun aurre-hizkuntzak), baina hau animalien hizkuntzen antzekoagoa zatekeela, gaurko giza-hizkuntzena baino (gogoratu Nichols-en hori, alegia, hitzik gabekoak liratekeela aurre-hizkuntza haiek).

Giza-hizkuntzan diren ezaugarri asko badira animalien hizkuntzetan ere. Alabaina, ezaugarri garrantzizko gutxi batzuk badirudi giza-hizkuntzari bakarrik dagozkiola; ondoko hauek, besteak beste (*Wikipedia*):

- ✓ Egitura sintaktikoa: giza-hizkuntzan hotsak eta gainerako komunikazio osagaiak hierarkikoki antolatuta daude eta, beraz, osagaien ordenaren aldaketak mezu ezberdinak sor ditzake (adib. *esne-behia* vs. *behi-esnea*).
- ✓ Emankortasuna: Osagai multzo mugatu batetik potentzialki mezu ezberdin kopuru mugagabe bat sor daiteke: adibidez, hogeitaka hots baino ez dituen sistema batetik potentzialki hitz kopuru mugagabe bat sor daiteke.
- ✓ Metahizkuntza: hizkuntzak esandakoaren formari erreferentzia egin ahal dio, edota hizkuntzak hizkuntza berari buruz hitz egin.

1.3. Nondik dator euskara?

Europako Goi Paleolitoko lehen gizaki modernoek — Cro-Magnonek (*homo sapiens sapiens*)— duela 40.000ren bat urte populatu zuten Europa, Neardentalak desagertu baino zertxobait lehenago, aurkitutako hezurrik zaharrenek adierazten dutenaren arabera. Baliteke olatu bat baino gehiago izatea Europa kolonizatu zutenak —genetistak dabilza horrelako hipotesiak frogatu nahiz—,⁵ baina, nolana ere ordutik hasi eta erromatarrak

³ Ikus <<http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2054/erlaitz-haitzuloan-labar-arte-paleolitikoko-grabatuak-aurkitu-dira>>.

⁴ Cf. “...recalcar una peculiaridad del lenguaje humano que probablemente no tenga parangón en los sistemas de comunicación de otros animales y a la que podría atribuirse el éxito adaptativo que muestra el lenguaje en tanto que facultad de la mente. Se trata del hecho de que el lenguaje humano es una capacidad que sirve dos funciones independientes de manera simultánea: por un lado, es un instrumento flexible y poderoso para la representación del conocimiento y para el razonamiento en ámbitos de orden abstracto, y por otro, es una herramienta compleja y eficaz para la comunicación intencional” (Igoa 2013: 36).

⁵ Adibidez: “Ikerketa genetiko batzuen arabera, hiru migrazio izan ziren Europan: lehenengoa Erdialdeko Asiatik etorri zen duela 40.000 urte eta ekialdeko Europa kolonizatu zuen. Duela 22.000 urte bigarren olatu bat ezarri zen hegoaldeko eta mendebaldeko Europan. Gaurko europarren %80 bi migrazio hauen

gure lurretara etorri bitartean —hots, hemengo biztanleei buruzko lehenengo berriak izan bitartean— garai zeharo ilun batean barneratzen gara: ez dakigu ezertxo ere horretaz, paleoantropologoek, arkeologoek eta genetistek aurkitutako aztarnak eta egindako hipotesiez besterik.

Euskal Herriaren antzina hartako populazioaz denaz bezainbatean, hipotesi hedatuena Telesforo Aranzadi antropologoak eta Jose Migel Barandiaran antropologo eta arkeologoak (1948) landu zuten, Urtiagako (Itziar, Deba) burezur zenbait aztertutako kranioetriaren bidez.⁶ Hipotesi honek defendatzen du mendebaldeko Pirinioetako tipoa —euskal etnia— Neolitotik aurrera hemen bertan garatutakoa dela, *in situ* ‘lekuan bertan’. Bi burezurretan oinarritu ziren batik bat, Aziliar garaikoa bata (K.a. 9000-6000) eta Madelein aldikoa bestea (K.a. 15000-9000).⁷ Aziliar garaikoak euskal tipoaren ezaugarri nagusietako batzuk aurkezten dituzenez euren ustetan —ortognatismoa,⁸ rinoprosopia⁹ eta masailezur estua— mendebaldeko Pirinioetako arrazaren lehen aztarnatzaletan jo daiteke. Aldiz, Madelein aldikoak antzeko ezaugarriak izan arren, ez ditu erabat: honegatik tarteko tipotzat jo zuten, “Cro-Magnon arrazaren euskal tiporanzko bertoko garapena” bermatuko lukeena. Ondorioz, hipotesi honen arabera “euskal kranioaren” ezaugarri berezi horiek Neolitotik (duela 5.000 bat urtetatik) gaur arte bere horretan mantendu dira.

Hala ere, bere erabili zituzten antzinako giza-hezurrei eta bestelako aztarnei buruzko iritziak asko aldatu dira harrezkero:¹⁰ besteak beste, Jesus Altuna arkeologo eta paleoantropologoak —Barandiaranen jarraitzaile handienetako bat— eta Concepción de la Rúa genetistak (UPV/EHUko Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Sailekoa) Urtiagako burezur horien datazioa berregin dute erradiometria teknikaz, eta uste baino askoz modernoagoak direla ondorioztatu dute, zehazki Brontze Arokoak, hots, K.a. 1800-1200 ingurukoak (Altuna & de la Rúa 1989, ap. López, Izagirre & Santos 2013). Esan gabe doa honek kolokan jarri dituela Aranzadi eta Barandiaranen teoriaren oinarriak.¹¹

Bestalde, azkenotan genetistek hainbat ikerketa egin dituzte Europako jendeen jatorria eta euren arteko loturak jakin nahiz, ez gutxitan euskal etnia (ere) kokatu nahiz. Har dezagun arestian hautsak harrotu dituztenetako bat. Uppsalako Unibertsitateko (Suedia) nazioarteko ikertzaile talde baten ikerketaren arabera, duela 7.000 urte Mesopotamiatik Europara heldu ziren gizaki nekazariak bertako ehiztariekin nahastu ziren, eta hortxe dago gaur egungo euskaldunen jatorri genetikoa.¹² Ondorio linguistikoak ere atera dituzte,

ondorengoak dira; duela 20.000 urteko glaziazio betean Iberiar pentsintsulan eta Balkanetan babestu ziren, eta klima hobetu zenean berriro hedatu ziren European barrena. Hirugarren migrazioa Erdialdeko Asiatik etorri eta duela 9.000 urte gertatu bide zen, Neolitoan zehar, eta gaurko europarren %20ak bakarrik ditu emigratzaile hauen markatzaile genetikoak” (Semino *et al.* 2004, ap. *Wikipedia. La enciclopedia libre*, s.v. *homo sapiens*; nik itzulia).

⁶ Kranioetriak “egungo gizaki eta historiaurreko giza kranioen aztarnen ezberdintasunak neurtzen ditu”, haien formak eta tamainak oinarrituta (López, Izagirre & Santos 2013: 343-344).

⁷ Xehetasunetarako Estornés Lasa (d.g.) dut iturri; bidenabar, arraza zuriaren nagusitasuna aldeztu duen web-orri lotsagarri batean dago eskegita (<https://www.stormfront.org/forum/t1156604/>).

⁸ Aurpegiari buruz hitz eginez, bekokitik kokotseraino doan soslaiko marra bertikala denean. Egia esanda, ez dago horrelakorik ezin giza arrazatan, baina arraza batzuk besteak baino hurbilago daude bertikaletik (<https://www.portalesmedicos.com/diccionario_medico/index.php/Ortognatismo>).

⁹ Ahoaren luzerarekiko aurpegiaren garapen bertikal handia (Barandiaran, ap. Ugalde 2004).

¹⁰ Ikus, adibidez, <<http://zientzia.net/artikuluak/lezetxiki-eta-arbasoen-arbasoak/>>.

¹¹ Hemen dugu dialektika esperimentalaren adibide eder bat. Burezurrak datatzeko teknika zorrotzuz gezurtatu da kasu honetan teoria.

¹² Iker Tubia, *Berria*, 2015-09-17 <http://www.berria.eus/paperekoa/1848/038/001/2015-09-17/jatorria_argitzeko_bide_luzea.htm>.

tentuz bada ere tentuz, beren ikerketatik: alegia, euskara Mesopotamiatik heldu ziren nekazari haiek ekarri bide zutela.

Genetista zuhurren iritziz, *cum mica salis* hartu behar dira ikerketa honen —eta honelakoen— ondorioak, antzinako DNAREN azterketa ez baita modernoa bezain ziurra, aise andeuririk edo kutsaturik egon daitekeelako. Horrezaz gainera, gure ikuspegitik nabarmena da genetistek bi jauzi handi egiten dituztela: DNAtik historiara eta historiatik hizkuntzara.

Lehenengo jauziari dagokionez, gogoan har dezakegu Guido Barbujani populazio genetikako adituak esana (ap. López, Izagirre & Santos 2013: 349): “populazio genetikaren egindako edozein aurkikuntza, gertakari historikoren bati lot dakioke; baina kontrakoa iradokitzen duen beste gertakari historiko bati ere bai”. Izan ere, gertakari historikoak ez dira geneetan agertzen (gure kasuan, Mesopotamiatik etorri omen zen migrazioa), jakina, baizik eta historialariek emandakoak dira: genetistek lortutako emaitzak —delako mutazioaren garaia— interpretatu nahirik, historialariek garai hartarako emandako azalpenak baliatzen dituzte, besterik ez.

Bigarren jauzia are garrantzikoagoa da guretzat: hizkuntzak ez dira aztarnategietan aurkitzen (idazkirik egon ezean, jakina), eta ez dira ez hezurretan, ezta DNAN ere igartzen. Mintzamina geneetan zehar bila daiteke, bai, baina norberaren hizkuntza (edo hizkuntzak) ez dira geneetan grabatuta gelditzen: txikitan (edo handitan) ikasten dugun zerbait da hizkuntza, ez genetikoki datorkiguna. Euskaldunok ez gara euskaldun arrazoi genetikoen genetik, etxean edo kanpoan euskara ikasi dugulako baizik.

Halaber, herria eta hizkuntza ez dira bat, inondik inora ere. Historian behin eta berriz gertatu da (eta gertatzen ari da) herri oso bat hizkuntzaz aldatzea. Juduek aspaldi galdu zuten hebreera (K.o. II. mendean), tokian tokiko hizkuntzek edo jiddishak ordezkatu,¹³ baina ezin ezagunagoa da nola gorde duten beren herri-nortasuna, diaspora luze eta gogor bat bizi izanagatik ere. Halaber, begien bistan dago edonor izan daitekeela euskalduna —edonon jaioa, edonongo gurasoak dituen...—, baina “zortzi euskal deiturak” dituzten asko ez direla euskaldunak, euskal herritarak izan arren. Beraz, euskal etnia hemen garatutakoa balitz ere Barandiaranek nahi bezala, ez dago jakiterik hasiera hartatik “euskaldunak” ziren edo ez: agian bai, edo agian ez.

Honek garamatza hatsarre garrantziko batera: hizkuntzaren historiaurreari buruzko hipotesi sendoak hizkuntz datuen gainean egiten dira, ez bestela. Eta kasu honetan guk badugu datu bat: herri indoeuroparrak (IE) eta haien hizkuntzak olatuka sakabanatu ziren Europan barrena eta, guri dagokigunez, aurrezertak etorriko ziren aurrenik, K.a. 800. urtetik aurrera (zeltiberiera) —agian lehentxeagotik ere, K.a. 1200dik aurrera—, gero zertak, K.a. IV-III. mendeetan (galiera) eta azkenik erromatarak (latina), K.a. II. mendetik aitzina.

Espekulatzen hasiz gero, hamaika aukera daude euskaldunon arbasoak paraje hauetan noiztik dauden eta nondik edo nola etorri ziren azaltzeko, baina gure argudio sendo bakarra hizkuntzazkoa da: tartean euskara zerutik jauzi edo nonbaitetik ekarria delako berririk batere ez dagoenez (eta are gutxiago ondoren), eta euskara IE hizkuntza ez denez, *Ockhamen labana* erabiliz (daturik ezean hipotesik errazena hobetsiz), gure ZERO HIPOTESIAK izan behar du, besterik demostratzen ez den bitartean, pentsa litekeen bezain aspalditik hemen garatua dela euskara. Zergatik eta hizkuntza aurre-indoeuropar bat delako, IE hizkuntzak hona etorri aurretik hemen nonbait hitz egiten zena, K.a.ko lehen

¹³ Ezaguna da hebreera Israelgo estatuan berpiztu izan dela XX. mendean, luzaro juduen erlijio-hizkuntza hutsa izan eta gero, baina hau beste kontu bat da.

milurtekoa baino lehenagotik, alegia. Euskara edo, hobeto esanda, AITZINEUSKARA deituko genukeen aitzin-hizkuntzetako bat, hau da, gaurko euskararen arbasoetako bat, dudarik gabe gaurko euskaratik oso ezberdina zena (4 eta 5. gaietan sumatu ahalko dugunez).

2. Euskararen inguruko ahaidetasun hipotesiak

2.1. Ahaidetasuna nola frogatu?

Ahaidetasuna nola frogatzen den ikusi baino lehenago, komeni da bi ideia argi uztea. Lehenengo ideia tipologiarekin lotua da. Hizkuntzak sailkatzeko bi modu daude: tipologikoa eta genealogikoa. Tipologiak hizkuntzak beren egiturazko ezaugarrien arabera sailkatzen ditu eta genealogiak beren etorkiaren arabera. Bi sailkapenak ez dira bat, hau da, familia bateko hizkuntzak ez dira tipologikoki berdinak izan behar ezinbestean eta, alderantziz, tipo bereko hizkuntzak ez dira familia berekoak izan behar derrigor. Izan ere, alde batetik, ezaugarri tipologiko bera munduko lau bazterretan topa daiteke, familia erlaziorik gabeko hizkuntza ezberdinetan, hala nola ergatibotasuna georgieran, hizkuntza maietan (Guatemala, Mexiko) eta groenlandieran, besteak beste; bestetik, ezaguna da ukipenean dauden hizkuntzak hurbildu ohi direla ezaugarri tipologikoetan: adibidez, Balkanetako hizkuntza-eremuko ia guztiek (mazedoniera, albaniera, errumaniera, serbokroaziera eta bulgaria) atzizkitutako artikulua definitu bat (euskal *-a*-ren antzerakoa) garatu dute, euren hizkuntza-familien gainerako ordezkarietan existitzen ez dena.¹⁴ Eta, azkenik, familietan ez da ezohikoa tipologia aldaketak egotea: adibidez, erromantzeetan izen-flexioaren aztarnak urriak dira (generoa, numeroa), nahiz euren ama-hizkuntza den latinak flexio aberatsa eduki (deklinabidea).

Bigarren ideia latinezko perpaus batekin laburbil daiteke: *Negativa non sunt probanda* 'ezezkoa ezin daiteke frogatu'. Hala bada, ezin daiteke frogatu hizkuntza bi elkarrekin genetikoki lotuta ez daudenik: erlazioa hain izan liteke aspaldikoa, non ez duen gaur antzemateko moduko aztarnarik utzi, ez behintzat gure metodoek antzeman dezaketarik. Beraz, baiezkotan daudenek, hots, bi hizkuntzaren arteko erlazioa badela uste dutenek, eurek eman behar dituzte dena delako erlazioaren frogak.

Koxka honetan dago: zein froga mota eskatzen dute adituek ahaidetasuna frogatutzat emateko? Euskararen sendia aurkitzeko saio gehienetan antzekotasun-zerrendak aipatzen dira, alegia, euskal hitzak dena delako hizkuntzako antzeko hitzen parean jarriak, besterik gabe (ik. Schumacher & Seto 1994, adibidez). Alabaina, ahaidetasuna frogatzekotan, antzekotasunak ez dira aski, inondik inora ere ez.

Hau erakusteko, *absurdoraino txikitzea* (*reductio ad absurdum*) izeneko frogaketa erabili dute behin baino gehiagotan adituek. Izan ere, edozein hizkuntza pare konparatu eta hamaika antzekotasun aurkituko ditugu betiere. Traskek (1996: 220-221), adibidez, ahaideak izateko inolako itxurarik ez duten bi hizkuntza, hawaiera eta greziera zaharra, elkarrekin erkatu zituen, neke gabe taulan bilduta dauden hamar antzekotasun harrigarriok aurkiturik:

hawaiera		greziera zaharra	
<i>aeto</i>	'arranoa'	<i>aetos</i>	'arranoa'

¹⁴ Hizkuntza-eremu honetako hizkuntzak familia ezberdinetakoak dira: erromantzea (errumaniera), eslabiera (mazedoniera, bulgaria, serbokroaziera), etab.

<i>noonoo</i>	'idea'	<i>nous</i>	'idea'
<i>manao</i>	'pentsatu'	<i>manthano</i>	'ikasi'
<i>mele</i>	'abestu'	<i>melos</i>	'melodia'
<i>lahui</i>	'jendea'	<i>laos</i>	'jendea'
<i>meli</i>	'eztia'	<i>meli</i>	'eztia'
<i>kau</i>	'uda'	<i>kauma</i>	'beroa'
<i>kia</i>	'zutabea'	<i>kion</i>	'zutabea'
<i>hiki</i>	'etorri'	<i>hikano</i>	'iritsi'

Ez dago ez hawaiera, ez greziera jakin beharrik hori egiteko: aski da hiztegi elebidun bana hartu (adibidez, hawaiera-ingelesa eta greziera-ingelesa) eta ordutxo batzuk eman formaz eta esanahiaz berdin-berdinak ez bada, gutxienez antzekoak diren formak bilatzen. Erraztasunak berak diosku ez dela hortik ezer sendorik aterako. Izan ere, lau antzekotasun mota bereizten dira, eta lautik hiruk ez dute inolako zerikusirik erlazio genetikoarekin:

- Kasualitatezkoak
 - ✓ Kasualitate-kasualitatezkoak: giza-fonemen inbentario mugatuak ugari sortzen ditu.
 - ✓ Onomatopeiak, fonosinbolismoak, haur-hizkuntzako hitzak: giza-burmuinak funtsean berdinak izaki, mundua hautemateko modua eta hitz egiten ikasteko modua ere funtsean bat dira.
- Historikoak
 - ✓ Maileguak: hizkuntzen arteko ukipenaren ondorio.
 - ✓ Etorki komunari zor zaizkionak: hauek dira erlazio genetikoa frogatzeko balio duten bakarrak.

Honek esan nahi du ahaidetasuna frogatzeko lehen-lehenik egiaztatu behar dela kasualitatezko antzekotasunak eta maileguak alde batera utzi direla. Bigarrenik, orain arte erlazio genetikoa frogatzeko eraginkor suertatu den metodo bakarra METODO KONPARATZAILEA da. Erlazio bat frogatutzat emateko, metodoak EGOKITASUN ERREGULARRAK edo sistematikoak eskatzen ditu.

Ahaideak diren hizkuntzak konparatzen direnean hotsen arteko erlazioetan EREDU FINKOAK (hots, erregularitasunak) aurkitzen ditugu, hamaika hitzetan errepikatzen direnak, taulako adibidean bezala (Trask 1996: 203):

	sardiniera	italiera	erretikoa ¹⁵	frantsesa	gatzelania
'ehun'	kɛntu	tʃɛnto	tsjɛnt	Sã	Əjen
'zerua'	kɛlu	tʃelo	tsil	sɪʃɛl	Əjelo
'oreina'	kɛrbu	tʃɛrvo	tsɛrt	sɛR	Əjerbo
'argizaria'	kɛra	tʃera	tsaira	siR	Əera

¹⁵ Erretikoa Alpeen aldetik mintzatu zen hizkuntza aurre-erromatar bat ere izan daiteke, baina hemen aipatzen duguna egun Suitzan ofizial den hizkuntza erromantzea da, euskaraz *erromantxea* ere deritzona.

Hizkuntza hauetako hitz asko eredu honen arabera dira. Adibideen multzo etengabea honela trinkotzen da (cf. 1. gaia), hasierako kontsonanteari bakarrik erreparatuta (ikus daitekeenez, badira hitzon artean egokitasun erregular gehiago ere):

sard. *k-* : it. *tf-* : erret. *ts-* : fr. *s-* : gazt. *θ-*

Eta erromantzeak latinetik datozela kontuan harturik, honela:

lat. *k-* > sard. *k-* : it. *tf-* : erret. *ts-* : fr. *s-* : gazt. *θ-*

Taulan parean jarrita dauden formak KOGNATUAK dira: izen honekin izendatzen ditugu antzinako forma beretik datozen formak edo, alderantziz begiratuta, antzinako forma batek denborarekin hartu dituen forma ezberdinak.

Goiko adibidean deskubritu dugu hizkuntza horien arteko antzekotasunak kognatuak direla beren artean, hau da, etorkin komunari zor zaizkiola. Hala eta guztiz ere, metodoaren indarra hobeto antzematen da begien bistakoak ez diren egokitasun erregularrak frogatzeko gauza denean. Hona adibide klasiko bat (Meillet 1925: 20), non hizkuntza indoeuropar batzuen kognatuen antzekotasuna (ia) begi-bistakoa izan arren, armenierazko forma erabat ezberdina den, hain non metodorik gabe ez genukeen gainerakoen kognatutzat joko:

sanskritoa	greziera	latina	armeniera	
<i>duvā</i>	<i>Dyo</i>	<i>duo</i>	<i>erku</i>	'bi'

Lehen begiratuan pentsa genezake armeniera IE hizkuntza izan arren, hitz honetan beste jatorri bateko hitza hartu duela. Alabaina, kontua da grekoarekin konparatuta, adibidez, hain ezberdinak diren formen artean badirela egokitasun erregularrak, alegia, badirela armenieran *erk-* hasieradun hitz gehiago grekoz *dw-* hasiera dutenak:

greziera	armeniera
<i>dwi-</i> 'beldur izan'	<i>erki-</i> (<i>erkiwt</i> 'beldurra')
<i>dwāron</i> 'luzaro'	<i>erkar</i> 'luzea'
...	...

Egokitasun erregularra: gr., etab. **dw-* → arm. *erk-*

Esan gabe doa batetik bestera gertatu diren hamaika hots-aldaketak azaldu behar izan zituztela adituek horrezaz ohartu zirenean, baina guri orain axola zaiguna hauxe da: formaz hain ezberdinak izanik, eta kidetasuna hain esperoezina, horrelako egokitasun erregularrek are eta ziurrago bihurtzen dute ezarri nahi den ahaidetasuna.

2.2. Euskal hipotesien ezaugarri orokorrak

BIBL → Trask 1995: 65-68 (“Introduction”).

→ Campbell 1998: 315-326. Trasken ezaugarriak aspaldiko ahaidetasunak “frogatzeko” egin diren saio gehienetan agertzen dira; hemen azalpen zehatzagoak aurkituko dituzu.

Oro har, bi “konparatzaile” mota ditugu: hizkuntzalariak, baina tamalez ia beti beren ofizioko arauak errespetatu gabe jokatzen dutenak, eta “itzultzaileak” (Nuñez Astrain 2003: 253-260) edo “deszifratzaile magikoak” (Rodríguez Ramos 2005),¹⁶ euskararekin munduko edozein hizkuntza misteriosu “dezifratzeko” edo “itzultzeko”

¹⁶ Rodríguez Ramos baskoiberista da, hots, euskara eta iberiera genetikoki lotuta daudela sinisten duten hizkuntzalari gutxietakoa. Honexegatik ezin ikusi ditu “dezifratzaile magikoak”.

gauza sentitzen direnak. Adibidez, Henri Guiter-ek (1987) Valentzia aldean aurkitutako iberierazko bederatzi testuren “itzulpena” argitaratu zuen. Honela kontatzen du Núñez Astrainek nola egin zuen lan (2003: 121; nik itzul.): “Iberierazko testua hartu, arbitrarioki interpretatu (adibidez, ausaz erabakiz [iberierazko] ikurren *ptk* edo *bdg* irakurketa), hitzetan arbitrarioki zatikatu, hitzak banan-banan itzuli Azkuek 1906an argitaratu zuen euskara-gaztelania-frantses hiztegiarekin (hiztegia bikaina da, baina modernoegia duela 2.000 urteko testuetarako), ezker-eskuin edo alderantziz ordenatu behararen arabera, intuitiboki eta gramatikari begiratu gabe batu eta zentzugabeko itzulpenak lortzen ditu, ondoko laginean jasotakoak bezalakoak”:

- "A dos ciudadanos pobres, ya en el ramaje de la orilla, al momento de pagar la leña siendo cortos de medios, se ase el haz que está allí; se dará enebro".
- "Por arriba, pocas raíces; rara vez este acceso será intercambiable".
- "Por abajo de la palidez, la noche".
- "(A quien) el instante presente (parece) corto, la noche llega pronto".
- "Si golpeamos algún clavo, la vigilancia que tenemos nos será benéfica".
- "Deseamos el sol, pronto lo ocultamos".

Gorrotxategik (1998) esan bezala, honelako itzulpenetan iberierak testua jarri besterik ez du egiten, eta euskarak lexikoa itzultzeko giltza ematen; aldiz, dena delako “itzultzaileak” bere nahierara hautatzen ditu hitzen arteko erlazio gramatikalak, hizkuntza horietan (beste edozeinetan bezala) erlazio gramatikalak askeak edo axolagabeak izan ahalko bailiran.

Hizkuntzalarien aldetik, salbuespenak salbuespen, esan liteke euskararen gaiak “erotu” dituela edo, hobeto esanda, misterio handi bat konpontzeak emango liekeen ospeak eramanda objektibotasuna bermatzen dituztenak oro “ahaztu” dituztela. Gogora ditzagun: datu egiazko eta egiaztagarriak, metodo ahalik zorrotzenak eta gainerako adituekiko kontrastea.

Batera zein bestera, beraz, oso lan eskasak egin dira oro har, nolana hikoak, hain non Traskek (1995) “bongo-bongo hurbilketak” izena eman baitzizkien. Hauek dira horien ezaugarriak haren esanetan:

- Euskaraz ezer gutxi jakinik, edo ezer ez
- Haren historiaz eta historiaurreaz dakiguna kontuan hartu gabe
- Euskal hitzak nolana hitzaturik
- Egokitasun erregularrik aurkitzeko asmorik ere gabe

Euskaraz eta euskararen historiaz ezer gutxi jakiteak berekin dakar saio gehienetan akatsak ugari aurkitzea erkatutako euskal formen aldetik (batek daki zenbat egongo diren beste hizkuntzaren aldetik ere), saioaren fidagarritasuna kolokan jartzeko modukoak guztiak. Ohikoenak hauek (Lakarra 1999):

- Forma modernoak erkatzen dira, ez aitzineuskararenak
- Maileguak hartzen dira aintzat
- Morfema analisi faltsuak egiten dira
- Esanahi faltsuak ematen dira

Aitzineuskararen formak erabili beharko liriateke, delako hizkuntza eta euskara banatu ziratekeen garaitik hurbilagoko hizkuntza erabiltzearen, eta ez tartean euskaraz sortutako forma berriak edota euskararen barnean hotsez, esanahiz edo funtzioz aldatutako formak. Gainerakoez, ez du ematen azalpen beharrik dagoenik. Adibidez, Viacheslav Chiribka hizkuntzalari abkhaziarrek euskara Kaukasoko hizkuntzekin erkaturik proposatu zituen 90 “kognatuen” artean honelakoak daude:

**xor* ‘dog’: erro ezezaguna (cf. *zakur* eta *hor* ‘txakurra’)
kolko ‘woman’s breast’ (sekulua dokumentatu gabeko adiera)
aditu ‘hear, understand’ (mailegua, < lat. *auditu(m)*)
gurpil ~ **gwVr-* ‘ring’ (hitz elkartua, < *gurdi* + *bil*, ‘eraztuna’ adierarekin zerikusirik gabekoa)

Edonola ere, hipotesi garrantzizkoenak bederen berpasatuko ditugu, zertan oinarritzen diren eta ondorioak zein diren jakitearren. Horretarako, bitan banatuko ditugu: hipotesi klasikoak eta 1945 ondokoak.

2.3. Hipotesi klasikoak

Euskara ia edozein hizkuntzarekin erkatu bada ere, bi hipotesi nagusi daude: baskoiberismoa (§ 2.3.1) eta Kaukasokoa (§ 2.3.2). Aipatuenak ez ezik, landuenak ere izanik, biok aski izango ditugu noraino iritsi den eta nola jokatu den antzemateko.

BIBL → Gainerakoak ezagutu nahi izanez gero, ik. Trask 1995 osorik eta, luzeago, Trask 1997: 358-415 (“Connections with other languages”).

2.3.1. Baskoiberismoa eta hipotesi hamito-semitikoa

BIBL → Mitxelena 1964a: 168-174 eta 1973: 337-339.

→ Schuchardten lanaren kritika: Bähr 1934.

→ Iberieraren azterketa nola dabilen jakin nahi izanez gero: De Hoz 2001.

→ **Ikus Lakarra (2018: 36-43) bertsio gaurkotu baterako.**

Baskoiberismoa edo euskoiberismoa aspaldiko hipotesia da. Funtsean, euskara eta iberiera familia bereko hizkuntzak direla aldeztzen du. Hipotesi honen hedapen baten arabera, hizkuntza hamito-semitikoen familiakoak lirateke biak, gainera:

- hizkuntza semitikoak: hebraiera, arabea, akadiera, feniziera, etab.
- hizkuntza hamitoak: amazigera (berbera), egiptoera (→ koptoera), kuxtar hizkuntzak (somaliera, etab.)

2.3.1.1. Azpihipotesiak eta eztabaida

A) Euskara eta iberiera ahaide dira (= “baskoiberismoa”)

Tradiziozko oinarriak: Euskara Penintsulako lehen hizkuntza izan omen zen, Babelen ondoren Tubalek ekarria (“tubalismoa”), garai batean Penintsula osoan mintzatua. Ideia hauek aski hedatuak izan ziren hemen eta kanpoan XVIII. mendera arte gutxienez (Garibai, Poza eta Larramendi, besteak beste). Denborarekin, Penintsulan zehar idazkera bitxi batean idatzitako lekukotasunak agertu ahala, horiek antzinako euskara haren frogatzat hartu ziren (cf. Larramendi 1745).

Oinarri modernoak: bi hizkuntzen arteko antzekotasun nabariak:

- fonologi sistema: **R-, **p, **m, bokalismo bera...
- silabaren egitura: (C)V(W)(R)(S)(T)
- tipologia: iberiera ere eranskaria da: NP-*ar-en*...
- antzeko atzizkiak (-*en*, -*tar*...), antzeko hitzak-eta (ib. *bios* ~ eus. *bihotz*, ib. *biskar* ~ eus. *bizkar*, ib. *biur* ~ eus. *bihur*, ib. *gudua* ~ eus. *gudua*, ib. *ildun* ~ eus. *ilun*...)

Schuchardt-ek (1913) euskal deklinabidea erabiliz identifikatu uste izan zituen iberieraren deklinabide markak (erg. eus. *-k* : ib. *-c*, gen. eus. *-ken*¹⁷ : ib. *-ken...*). Gómez Morenok (1943) iberieraren idazkera dezifratzeko egin zuen ahalegin garrantzizkoaren ondoren, agerian gelditu zen Schuchardtek erabilitako irakurketak aldatu behar zirela.

Arazo nagusia, dudarik gabe, hauxe da: iberiera irakurri irakurtzen da (ikur bakoitzak zein hots adierazten duen ezaguna da), baina ez da ulertzen. Beraz, ib. *bios* : eus. *bihotz* bezalako konparaketak zeharo antzuak dira, ez baitago inolako modurik jakiteko ib. *bios*-ek zer esan nahi zuen: ‘bihotza’ bezainbeste izan liteke ‘ibaia’ edo ‘ilea’ edo ‘makila’, nork daki. Bide itsu honetatik ateratzeko modu bakarra idazki elebidun bat aurkitzea litzateke, Rosetta harriak egiptoera zaharraren hieroglifikoak dezifratzen lagundu zuen moduan.

Ondorioak: Hipotesiak, emankorra balitz, iberiera ulertzeko edota euskararen historiaurrea argitzeko balioko luke. Baina ez du ez batean, ez bestean lagundu; aitzitik, gehiago aurreratu dute zein bere aldetik. Iberiera aztertzen dutenek azken 30-40 urteetan analisi morfologikoak eta konparaketa tipologikoak egin dituzte, eta bide hauetatik gauza izan dira erroak eta atzizkiak identifikatzeko, bai eta adizkiak ere, besteak beste.

Antzekotasunen azalpen modernoa:

Hasteko, iberiera aztertuago eta antzekotasunak urriago egiten ari dira; halere, non-nahi aurki daitezke oraindik, bai eta aspaldi beste era batera irakurritako idazkiak ere: adibidez, *gudua deisdea* ospetsua, ‘gudu-deia’ interpretatua (hitzez hitz ‘gudua deitzea’ edo), egiazki oso bestela irakurri behar da: *kutur oisor*.

Gainerakoan, euskara eta iberiera tipologikoki antzekoak direla egia izanik, bi azalbide proposatu dira: (1) hizkuntza-eremuko fenomenoak (*Sprachbund*) izatea, hots, hizkuntza-eremu jakin batean zehar hedatutako ezaugarriak, hizkuntzak familia berekoak izan zein ez; (2) bestelakoak (hitzak, atzizkiak...), kasualitatezko antzekotasunak ez izatera, maileguak lirateke, ziurrenik iberierak euskararen izandako eraginaren ondorioz. Azalpen honek oinarritzko arazo bat du: ez dago inolako ziurtasunik bi hizkuntzak elkarrekin bizi izan zirenik; alderantziz, aditu batzuk (cf. De Hoz 2001) etsita daude iberiera Antzinatean harreman-hizkuntza izan zela gaur idazkiak topatzen diren lekuetako askotan eta, beraz, haren berezko eremua idazkiek adierazten dutena baino askoz murriztagoa zatekeela. Berriz, mailegutza gertatzeko ezinutzizko baldintzak bi dira: ukipen egoera iraunkorra eta elebidun portzentaia garrantzizkoa.

B) Iberiera Afrikatik dator

Kultura materialean ba omen dira antzekotasunak. Baina hizkuntz ahaidetasunak hizkuntz frogekin frogatu behar (cf. Campbell 1998: 323, “Only Linguistic Evidence”).

Horrezaz gainera, konparaketak egitekotan, talde ondo finkatu batekin egin beharko lirateke. Tradizionalki hizkuntza hamitoek elkarrekin lotzeko arazoak izan dira eta gaur egun familiakotzat jotzen zirenetako batzuk kanpo gelditu omen dira. Hamitoak eta semitikoak, bi taldeak bat egin daitezkeen ala ez frogatu gabe dago oraindik, makrokonparatzaileek (ikus beheago § 2.4.3) makrofamilia afroasiarraren partetzat ematen badituzte ere (cf. *Wikipedia*, s.v. *Afroasiar hizkuntzak*, esate baterako).

Hizkuntzen nolakoaren aldetik ere zailtasun handiak daude. Hizkuntza hamito-semitikoez barneflexioa dute; oster, iberiera eranskaria bide zen. Erro kanonikoari begiratzeak ere ez ditu kontuak errazten:

¹⁷ *-ken* zeukan berak euskal genitiboaren antzinako formatzat (*gizonaken*), nahiz forma moderno analogiko bat baino ez izan.

- iberiera CVCV
- hamitikoak C-C
- semitikoak C-C-C

Hau da, hizkuntza hamito-semitikoez kontsonantez bakarrik osatutako erroak dituzte: flexioko aldagaiak (plurala, aditz denbora, etab.) tarteko bokalek adierazten dituzte; adibidez, *k-t-b* ‘idatzi’ erroak honako forma hauek eratortzen dira, besteak beste:

kitāb ‘liburua’, kutub ‘liburuak’, kātib ‘idazlea’, kuttāb ‘idazleak’, kataba ‘idatzi zuen’, yaktubu ‘idazten du’...

C) Euskara ere Afrikatik dator

Ez dago frogarik, propietate trantsitiboa izan ezik:¹⁸ euskara iberieraren ahaidea balitz eta iberiera Afrikatik baletor, orduan euskara Afrikatik letorke.

D) Euskara eta Ipar Afrikako hizkuntzak genetikoki lotuta daude

Frogatu gabeko aurreko hiru hipotesietan oinarritutako ustea, batez ere euskara berebarearekin parekatzeko erabilia, *isen* ‘izena’ bezalako antzekotasun miragarriak lagun. Schuchardt izan zen haren aldezerik handiena, baina honetan behintzat irizpiderik gabe jokatu zuen: egokitasun erregularrik ez, edozein hots edozein hotsekin lotu, forma ezinezkoak erabili...

2.3.2. *Kaukasoko hizkuntzak*

BIBL → Mitxelena 1964a: 174-195.

Tradiziozko oinarriak: Bi Iberiak, ekialdekoa (Kaukasokoa)¹⁹ eta mendebalekoa (Hispaniakoa; cf. Tovar 1980: 15-17).

Oinarri modernoak: Hizkuntza IE-en uholdeak Mediterraneoaren bi ertzetan utzitako bi uharteak lirake. Antzekotasun lexiko eta morfologikoak (ergatiboa, SOV, postposizioak, Gen-Iz ordena...).

Zer dira Kaukasoko hizkuntzak? Kaukason familia ezaguneko hizkuntzak ere bizi dira (IE hizkuntzak, turkiar hizkuntzak...), baina “Kaukasoko hizkuntzak” izena jatorri ezagunik ez dutenak bakarrik izendatzeko erabiltzen da. Hemen sortzen da hipotesiaren lehenengo ahultasuna, zeren eta ez baita oraingoz haien arteko ahaidetasuna bera ere frogatu. Bi talde egin ohi dira:

- Hegoaldekoak (kartvelikoak): talde argia, baina historia laburrekoa (georgierak bakarrik dauka dokumentazio zaharra) eta ez behar bezain aztertua (orain askoz hobeto omen dago).
- Iparaldekoak: Iparmendebalekoak (abkhaziera bide da ezagunena), erdialdekoak (txetxenera, adib.) eta iparrekialdekoak (Dagestan-eko hamaika hizkuntza). Beren arteko konparaketa erraza omen da fonologian, baina ez morfologian.

Orain arteko hurbilketetan, edo hizkuntza bakar bat erabili da (georgiera, adib.) edo denak batera erabili dira, nahasian, abkhazierazko hitz hau euskal hitz honekin konparatuta, eta txetxenerazko hura beste harekin. Esan bezala, ezer lortzeko asmotan,

¹⁸ Guk horrela deitzen diogu, “propietate trantsitiboa”, baina orain badirudi “iragate-erlazioa” deitzen zaiola (ikus *Wikipedia*, s.v.)

¹⁹ Kaukasoko Iberia, K. a. 65. urtean Erromaren azpiko bihurtu zen erreinu garrantziko baten izena da; ekialdeko Georgian zuen erdigunea.

aitzineuskara “aitzinkaukasiera”-rekin erkatu beharko litzateke eta, oraingoz ezinezkoa izanik, gutxienez aitzinkartvelikoarekin-eta erkatu beharko litzateke.

Oztopo nagusia: Ahaidetasunik balego, oso aspaldikoa litzateke (5-6.000 urtekoa, gutxienez); beraz, frogatzen oso zaila, agian ezinezkoa, denborarekin aspaldian izandako balizko kidesunak galdu edo zeharo desitxuratuak egon daitezkeelako.

Hizkuntzari dagokionez, berriz, ezberdintasun funtsezko bat aipa daiteke (Mitzelena 1968): Kaukasoko hizkuntzek kontsonante-sistema ugariak dituzte, eta oro har talde kontsonantikoak ere ugari eta zabalak. Ipar-mendebaleko Ubykh hizkuntza hilak²⁰ (gazt. *ubijé*) mundu-marka guztiak hausten ditu: 84 kontsonante zituen (tartean 20 ubular), baina bi bokal baino ez. Georgieraz ere ez dira ezohikoak lau, bost edo sei kontsonanteren segidak —adibidez, /brt'q'ɛli/ (ing. ‘flat’),²¹ /mts'vrtneli/ (ing. ‘trainer’) eta /prtskvna/ (ing. ‘peeling’)— eta gramatika hizkiak erantsiz gero, zortzi ere izan daitezke: /gvbrdyvnis/ (ing. ‘he's plucking us’). Nola kontsonanteak georgieraz ezin izan daitezkeen silabaren gune, CCCCCCVC silaba baten aurrean gaude. Ezaguna denez, ordea, euskara zaharrak ez zuen talde askorik onartzen, ezta inguruko hizkuntzetan hain ohikoak diren “muta cum liquida” erakoak ere (*liburu* < lat. *libru(m)*, etab.); aitzineuskararako proposatzen ditugunak (ikus 4 eta 5. gaiak) ez dira gehiago hurbiltzen Kaukasoko hizkuntzen kontsonantismora.

Emaitzak: Hurbilketa kopuru handia (hitzak eta morfemak), baina behar bezalako frogarik ez. Serio batzuetan —Lafonek egokitasun erregularrak aurkitzeko saioak egin zituen: ikus Lafon (1999 [1975]: 52)—, baina gehienetan “bongo-bongo” erara.

Ondorioak: Bide antzua hala aitzineuskara nola aitzinkaukasiera azaltzeko.

²⁰ Azken hitzuna 1992an hil omen zen, Fidela Bernat erronkarieraren azken hitzuna zendu eta urtebetera (*Wikipedia. The free Encyclopedia*, s.v. *Ubykh language*).

²¹ Ez dakit ‘laua’ itzuli behar den, ala ‘pisua, etxebizitza’. Arazo hauek dakartza ezagutzen ez duzun hizkuntzarekin jotzeko. Iturria: ingelesezko *Wikipedia*.

2.4. 1945 ondoko hipotesiak

Gure artean ere entzute handia izan duen hipotesi zahar-berri bati helduko diogu lehenik, “Europera zaharra”-renari (§ 2.4.1), eta gero aspaldiko ahaidetasunak frogatzeko ustean erabili diren bi “metodo” berri aurkeztuko ditugu: glotokronologia (§ 2.4.2) eta makrokonparazioa (§ 2.4.3).

2.4.1. *Europera zaharra*

Lehenagotik datorren ustea da uholde indoeuroparrak baino lehen Mendebaldeko Europan hizkuntza bakarra edo hizkuntz familia bakarra hitz egiten zela. Ideia hau beste kezka batekin lotu zen: nola berreskuratu uholde horiek baino lehen hitz egiten ziren eta arrastorik utzi gabe hildako hizkuntzak? Erantzun bakarra zuen galdera honek: Europa osoan barna, han-hemen topatzen ziren leku-izen ez indoeuroparren bitartez. Leku-izen hauek hizkuntza ezagunen bidez ezin azaldu daitezkeenez, hizkuntza aurreindoeuroparren batenak bide dira. Bi ideiak bilduta, antzina Europan hitz egin zen hizkuntza edo hizkuntz familia aurreindoeuropar horrenak, hain zuzen.

Lehenik ezarri behar dugu ez dela ezinbestekoa indoeuroparrak baino lehenagoko Europa hartan familia bereko hizkuntzak hitz egitea: aitzitik, egiantzekoa da hizkuntza aniztasuna egotea, beste kontinente batzuetan aurkitu denaren antzera (cf. Ringe 2009).

Hala eta guztiz ere, hirugarren urrats bat egin du Vennemann-ek (1994tik aurrera): Mendebaldeko Europan bizirik dagoen hizkuntza ez-indoeuropar bakarra euskara izanik, hauxe da antzinako hizkuntza hartatik —berak “Vasconic” deitua— gelditutako aztarna bizi bakarra. “Vasconic” delakoa euskararen eta hainbat senide galduren jatorrizko hizkuntza litzateke, Azken Izozte ondokoa (duela 10.000 urte). Laugarren urratsa berez bezala dator: euskararen laguntzaz azaldu ahalko dira Mendebaldeko Europako leku-izen misterioitsu horiek, baita Europako hizkuntza indoeuroparretan gelditzen omen diren substratuko hitzak ere (xehetasun gehiagotarako, ikus Lakarra 1996c). Hauek dira bere lanak:

- 1994, “Linguistic reconstruction in the context of European Prehistory”, *TPS* 92: 2.215-84.
- 1997, “Some West Indo-European words of uncertain origin”, in R. Hickey & S. Puppel (arg.), *Language History and Linguistic Modelling*, Berlin, etab.: Mouton de Gruyter 879-908.
- 1998, “Etymology and Phonotactics: Lat. *grandis* vs. Basque *handi* ‘big’ and similar problems”, *International Journal of Indo-European Studies* 26:3 & 4, 345-390.
- 2003, *Europa Vasconica – Europa Semitica*. Mouton de Gruyter, Berlin-N.Y.

Teoria honek Euskal Herrian ere izan zuen harrera onik: Alfontso Martinez Lizarduikoak —Ingenieritzan doktore eta Zientziaren Filosofiako irakasle— *Euskal Zibilizazioa (Gure herriaren sustraien bila)* liburua (1998) argitaratu zuen (honetaz ik. Lakarra 1999).

Vennemann hizkuntzalari historiko bezala ezagun xamarra zen honetan sartu baino lehen. Ez da euskal zoroak jo duen lehenengo hizkuntzalari, bere ofizioko arauak ahaztu eta aurrez erabakia duena (*quod erat demonstrandum*) frogatzera emana, bere kasuan Europako hizkuntza zaharra berreskuratzeko esperantzak ere itsutua, nonbait.

Leku-izenei dagokienez, beharbada egin duen handiena *Munich* hiri ezagunaren izena eus. *muino*-rekin lotzea izan da. Ez bakarrik eus. *muino* ezin daitekeelako inolaz ere aitzineuskarakoa izan (*m*-rik ez AE-n; cf. 4. gaia), baizik eta etimologia ezin ezagunagoa duelako; euskarazko *Wikipedia*-k dioena aski dukegu: “XI. mendean monje beneditarrak joan ziren inguru haietara. Hiria izena *Munichen* ‘monjeak’ hitzetik dator”.

Hitz arruntei dagokienez, berriz, 1998ko lanaren izenean bertan ikus daiteke bere proposamenetako bat: lat. *grandis* : eus. *handi* lotzen dituen, Vasconic **grandi-* erro batetik sortuak biak (!?); haren ustetan, erro honetatik letorke *andera* ere (bai, bai, *andera*, eta ez inolako dudarik gabe forma zaharrena den *andere*, akitanieraz eta Erdi Aroko euskaraz ondo lekukotua), **grande-era* ‘large-ness’ formak **grandera* ‘Highness’ eman zuelakoan, beste honelako perla gehiagoren artean.

Hauxe da Lakarraren ondorioa:

No se ve por qué el protovascónico había de poseer *r-* o una serie de *Cr-* o de *C-* (> \emptyset), a no ser que de esa manera el vascónico fuera algo casi equivalente a un “vascuence indoeuropeizado” que “explicara” todas las rarezas de las lenguas IE aún supuestamente no explicadas por los indoeuropeistas. Ahora bien; al vascuence y a los vascólogos poco les va en ello y es posible que los indoeuropeistas crean que para este viaje no hacían falta tantas alforjas: bastaba con reconocer desde un principio que la lengua representada por la hidronimia antigua europea (el “Vasconic” de V[ennemann]) era IE como Krahe y casi todo el mundo ha creído —y explicado— que era (Lakarra 1996c: 60).

2.4.2. Glotokronologia (edo lexiko-estatistika)

BIBL → Tovar *et alii* 1961: euskarari egindako aplikazio klasikoa.

→ Kritika orokorra: Campbell 1998: 177-186.

→ Euskarari aplikaturikoaz: Mitxelena 1964a: 195-196.

→ Bitarikoak: Lakarra 1997a: 562-571 (“Glotokronologia eta ‘konparaketa’”).

Glotokronologia Morris Swadesh-ek sortu zuen 1950ean. Haren helburua zen metodo konparatzailearen mugak gaitzetea, bi arlotan bederen: batetik, denboran atzerago iristea, guztiz euskara bezalako “historia gabeko” hizkuntzetan; bestetik, bi hizkuntza elkarrengandik noiztik bereizi ziren eta honen datazio absolutuak lortzea (karbono-14aren frogaz bezalako zerbait). Dakigunez, hizkuntzalaritza diakronikoak datazio erlatiboak soilik lortzen ditu, “aldaketa hau hura baino lehenago gertatu da” erakoak, eta banaka batzuetan bakarrik dago aldaketa multzo bat gertakari historiko batekin lotzeko arrazoirik, hots, datazio absolutu bat proposatzeko modurik.

Helburu hori lortzeko, zenbait onarpen oinarritzko ezarri zituen Swadesh-ek:

- Bada oinarritzko hiztegi bat, unibertuala, kulturatik askea eta gainerako lexikoa baino aldagaitzagoa.
- Aldagaiztasun hori denboran zehar beti bat da: %86 1.000 urtetan. Honek esan nahi du oinarritzko lexikoaren %86ak bere horretan irautea duela 1.000 urtetan: adibidez, akit. *Sembe* ~ eus. *seme*, akit. *Andere* ~ eus. *andere*, akit. *Bors* ~ eus. *bortz/bost*, akit. *Laur* ~ eus. *lau(r)* kognatu pareak, batzuk familia izenak eta besteak zenbakiak (oinarritzko lexikoaren ohiko osagarriak), ikus dezakegu hitzok mila ez, baizik eta bi mila urte ere (behintzat) egin dituztela euskarari.
- Galeraren erritmoa berdintsua da hizkuntza guztietan: %14 1.000 urtetan; hau da, oinarritzko lexikoaren %14a aldatu egiten da mila urte igarota.
- Hori jakinik, hizkuntzak bereizi zireneko data kalkulatu daitezke.

Glotokronologiak kritika latzak jaso zituen hasieratik, bai oinarritzko onarpen hauen aldetik, baita datuak erabiltzeko moduari dagokionez ere. Honegatik, berehala galdu zuen omena, eta egun ez du inork erabiltzen adituen artean.

Oinarritzko onarpenen aldetik aurkeztu zitzaizkion oztopo larrienak hauek dira:

- Oinarritzko hiztegia ez da kulturatik askea, ez eta uste zuten bezain aldagaitza (mailegutza, munduari buruzko ikuspegi ezberdinak, tabuak...).

- Iraunkortasun eta aldakortasun neurriak ez dira beti berak denboran zehar, ez eta berdinak hizkuntza guztietarako.
- Banaketa-datak kalkulatzeko arazoak: Banaketa ez da bat-batekoa izaten. Eredu matematikoa oso eztabaidatsua da.

Oso zaila da, ezinezkoa agian, munduko hizkuntza guztientzat berdin balio duen oinarriko lexikoko hitz zerrenda bateratu bat egitea. Kultura bakoitzak mundua era batera ulertzen du: esate baterako, zerrendak ‘sister’ eskatzen badu ingelesez, zer jarri behar dugu euskaraz? *ahizpa* ala *arriba*? Hau berau gertatzen da, etengabe, munduko gainerako hizkuntzetan: familiako erlazioak era ezberdinetara ulertzen dituzte, koloreak ez dituzte berdin banatzen,²² etab.

Bestalde, historia luzeko hizkuntzetan (IE, hizkuntza semitikoak, txinera...) oso argi ikusten da aldakortasun neurriak ez direla beti bat: aitzitik, badira “lasaitasun” garaiak, non hizkuntzaren atal gehienek bere horretan dirauten, eta “iraultza” garaiak, non aldaketa handiak, hizkuntzaren atal bat baino gehiago uki dezaketenak gertatzen diren.

Hizkuntz arteko banaketa ez da bat-batekoa izaten: alderantziz, denbora luzea behar da (mendeak, gutxienean kontuan) jatorri beretik datozen hizkuntzak beren artean ulertezinak bihurtu daitezkeen. Adibidez, erromantzeak K.o. V-VIII. mendeen artean sortutakotzat jotzen badira ere, denok izan dugu aukera gaztelaniatik abiatuta frantsesa, katalana, italiarra edo portugesa gutxi edo asko ulertzeko gauza garelako antzemateko: ulergaitzak izan daitezke guretzat batzuetan, batez ere ahoz (ez hainbeste idatziz), baina ez ulertezinak.

Matematika jakin behar metodoaren akatsak antzemateko, baina dakitenek erreparatu handiak ipini dizkiote. Dena dela, giza eta batez ere gizarte zientzietan bada halako lilura bat matematika edota estatistikarekiko, halakoak erabiliz gero ikerketaren zientifikotasuna bermaturik balego bezala. Coseriu pasarte argi bat eskaini zion honi:

Maiz ematen du zenbakiak eta sinboloak erabiliaz zehatz eta koherente garelako. Alabaina, zehaztasuna ideietan datza, eta ideien eta datuen arteko egokitasunean, ez sinbolo edo zenbakietan: izan ere, sinbolo eta zenbakiak ideiak adierazteko lanabes hutsak baino ez dira. Ideiak ergelak badira, edo gezurrezkoak, sinboloek eta zenbakiak ez dituzte zehatz eta koherente bihurtuko: gehienara jota gezurrezkoasun eta ergeltasun matematikoki perfektukoak izango dira (Coseriu 1965, ap. Lakarra 1997a: 568; nik itzulia).

Datuetan ere baziren arazo larriak. Hasteko eta behin, glotokronologiak ez dauka baliabiderik kasualitatezko antzekotasunak zein maileguak benetako kognatuetatik bereizteko. Begiz eta belarriz egindako erkaketak dira, fidagarritasunik gabeak. Adibide bat aski izango da hau agerian jartzeko: berehala aztertuko dugun Tovar-en saiotik (§ 2.4.2.1) ondoko hirukotea hautatu dugu:

eus. *etxe* (*etxe*) / gazt. *kaša* (*casa*) / fr. *fe* (*chez*)

Metodoa itsuka ari denez, adibide honek balioko luke euskara eta frantsesa elkarrekin lotzeko gaztelania alde batera utzita, eta elkarrengandik noiz banatu ziren kalkulatzeko, zeren eta eus. eus. *etxe* eta fr. *fe* kognatutzat emango bailituzke, hizkuntza hauen historiaz eta hitzonen historiaz ere dakiguna alde batera utzita. Azaleko antzekotasun faltsu horiek saihesteko, hizkuntzen historiaz dakiguna erabili beharko genuke hitzero. Baldin eta historia ezaguneko hizkuntzetan, emaitzak historiaren kontra badoaz, zein emaitza espero

²² Eztabaida interesgarri bat dago koloreen gainean: ikus https://en.wikipedia.org/wiki/Linguistic_relativity_and_the_color_naming_debate. ‘Urdina’ eta ‘berdea’ banatzen dituzten eta banatzen ez dituzten hizkuntzez, ik. https://en.wikipedia.org/wiki/Distinction_of_blue_and_green_in_various_languages.

daiteke historia ezezaguneko hizkuntzetan? Honek guztiak ondorio argi batera garamatza: glotokronologia ez da ezer metodo konparatzailea gabe.

2.4.2.1. Euskarari aplikaturikoa

Glotokronologiari berehala egin zitzaizkion kritikengatik ere, Antonio Tovar-ek (1961) baliatu zuen euskararen ahaidetasunak neurtzeko, Swadesh bera eta Karl Bouda, René Lafon, Werner Vycichl (hizkuntza hamito-semitikoetan aditua) eta Mitxelena bera lagun harturik: “El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence”.

Lan horretan zenbait hizkuntza hamito-semitiko (Rifeko eta Suseko berbereak, egiptoera, arabiera, koptoera), kaukasiko (zirkasiera, avarera, georgiera) eta paleosiberiar (txuktxiera) erkatu ziren euskararekin edo, hobeto esanda, hizkuntza horiek oro erkatu ziren beren artean, harrigarriki sekula proposatu ez diren erlazioak (georgiera eta arabiera, egiptoera zaharra eta txuktxiera, etab.) iradokitze moduan (!?). Edonola ere, lanaren ondorioz arabera, euskararen ahaide hurbilena Sus-ko berbera dateke (%7,38-10,86ko iraupeneko tasa oinarrizko lexikoan); honek adierazten omen du euskara eta Sus-ko berbera elkarrengandik duela 90-70 mende banatu zirela. Ondorengo hurbilena Rif-eko berbera liteke (%6-9,67ko iraupena; 95-75 mendeko etena); aztertuen artean ahaide urrunena txuktxiera liteke, berriz (%2,08-2,17ko iraupena; 135-120 mendeko etena).

Erkaketak ustekabe galantak ematen ditu historiaren kontra: adibidez, emaitzen arabera euskara gertuago legoke koptoeratik (%5,18-6,59ko iraupena; 100-90 mendeko etena), honen duela 2.000-3.000 urteko arbasoa den egiptoeratik baino (%3,35-2,29ko iraupena; 110-130 mendeko etena).

Edonola ere, erkaketa harrigarriek sortutako emaitza harrigarri horiek lasaiki gaindituta, hauek izan ziren Tovar-en ondorioak, euskararen ahaidetasuna Neolitoraino eramanezuela sinetsirik:

Contra las teorías ahora más favorecidas por la atención y el prestigio de los estudiosos, el parentesco vasco-bereber se acredita como más próximo que el vasco-caucásico: los índices numéricos nos llevan a la hipótesis de 80 siglos de separación. Si hubiera un origen común, estaríamos en los albores del neolítico (...).

Con las lenguas caucásicas los índices del vasco son más próximos para el circasiano y el georgiano, y queda en los umbrales del parentesco seguro el avar, como corresponde a su posición lejana en el Nordeste. El parentesco con las lenguas caucásicas nos lleva a una profundidad temporal que supera seguramente el neolítico (Tovar 1961: 262-263).

Ez dago ondorio onik itzaroterik ganorazko hizkuntzalariek baztertutako metodo batetik:

Tovar-ek eta bere lagunek metodoaren sorlekuan bertan (EEBBetan) hizkuntzalari zientifikoaren artean eta modu estandardean antolatutako hizkuntza familietan eztabaidatzen hasia zenean, 1961ean Euskal Herrira inportaturiko ustezko alternatiba horrek ez du inoiz lortu metodo konparatu klasikoa gainditzea, eta metodo onargarrien zerrendan ia mende erdi honetan sartzea ere lortu duenik ezin esan: aspaldi ahaztuxea eta baztertua dugu ofizioaren artean (Lakarra 1997a: 567-568).

Arazoa da ofizioaren artean baztertua izan arren, zaleek tarteka berreskuratzen dutela, haren ustezko gaitasun matematikoan fidaturik. Euskararekin lotutako (oraingoz) azken aipuaren egileak Paleolitoraino heldu uste du, “euskaralari zibilizazioa” delakoraino, hain zuzen:

Metodo lexiko-estatistikoak [= Glotokronologia] bi hizkuntzen artean gaur egun dagoen lotura erakutsi ez ezik, substratu baten osakide inoiz izan ziren ere kalkulatzeko balio du. Lorturiko koerlazio-zifreei [sic] esker jakin dezakegu hizkuntza horien arteko ukipena K.a. 10.000 urte gauzatu izan zela. Zenbaki horrek garrantzi handia dauka, paleolitiko —magdalenieneko, zehazkiago— Europan jartzen

gaituelako; artean, gailur-gailurrean zebilen (eta hedatzen ari zen) euskal-akitaniar zibilizazioa. Estornesen arabera, kaukasierarekin izaniko ukipen edo harreman hori, paleolitoko euskal-akitaniarrak Erdialdeko Europa eta Ekialde Ertainera jalgi zirelako da (Martinez Lizarduikoa 1998: 55 = *Euskal zibilizazioa*, Gaiak, Donostia).

Zein ote gure ahaide hurbilena? Neolitoko berbera ote, Tovar-ek uste bezala? Magdalenienseko kaukasiera ote, Estornesek eta Martinez Lizarduikok uste bezala? Metodo kaxkar batekin erdietsitako ondorioak kaxkarrak baino ezin izan.

2.4.3. Makrokonparazioa (konparazio masiboa)

BIBL → Lakarra 1997a: 572-580 “Euskara eta makrokonparaketa”.

→ Campbell 1998: 311-326.

Makrokonparazioaren sortzailea batez ere tipologiaren aita izateagatik ezaguna den Greenberg bera izan zen, *Language in the Americas* liburuan (1987). Metodo honen helburu nagusiak bi dira: ahaidetasunen bila metodo konparatzailea baino antzinagoko denboretara iristea eta munduko hizkuntzak makrofamiliatan (*macrophylum*) biltzea.

Metodo honek hizkuntza gutxitan hitz asko erkatu beharrean, hizkuntza askotan hitz gutxi erkatzen ditu. Begi-bistako antzekotasun lexikoak ahaidetasunaren frogatzat hartzen dira, antzekotasunaren egiazko arrazoia (kasualitatea? mailegutza?...) edo hitzaren izaera (onomatopeia, hots-sinbolismoa, haur-hizkuntza...) kontuan hartu gabe. Maiz datuak egiaztatu ere gabe egiten da (= “bongo-bongo hurbilketa”).

Dibulgazioan halako arrakasta bat lortu duten makrofamiliak eratu dituzte (hizkuntza amerindiarrak, nigerokongoarrak, nilo-sahararrak...), baina ez dute lehen ezagunak ziren erlazio genetikoez besterik frogatzea lortu.

Bestalde, hizkuntz familia bakoitzeko adituek eta hizkuntz historiaren teorikoek errotik kritikatu dute metodoa; funtsean ondoko akatsak errepikatzen dira metodo honekin egindako azterketetan:

- Makrofamiliak erabakitzeo aski da antzekotasuna hitz gutxi batzuetan (taldeko edozein hizkuntzatan) egotea. Ez dira sekula aitzin-hizkuntzak aitzin-hizkuntzekin konparatzen, ezta asmorik ere. Familia bateko edozein hizkuntzatan “antzekoa” aurkitzea aski bada, delako forma familia osokoa den ez den egiaztatu gabe, kasualitateari aukera larregi ematen zaio; hizkuntza bat munduko beste edozein hizkuntzarekin erkatuta antzekotasunak ugari aurkitzeo aukera dugula erakutsi dugu gorago: hizkuntza batekin erkatu beharrean hizkuntza familia oso batekin erkatzen badugu, antzekotasunak aurkitzeo aukera zenbat hizkuntza eta hainbat aldiz biderkatzen da.
- Hasieran oinarrizko hiztegia eta hitz gutxi batzuk konparatzen zituzten. Gero eta edozertariko hitz gehiago erabiltzen ari direnez, gero eta mailegaketari leku gehiago egiten zaio oharkabean.
- Familiakideak bilatzeko “antzekoa” eta “esanahi bertukoa” bezalako parametroak erabiltzen dituzte, hots, metodo subjektiboa eta axalekoa da, hitzen historian ez baitu sakontzen, ezta asmorik ere.
- Datuak ez ditu egiaztatzen:

...akritikoa, konparaketa lexiko huts ahulean oinarritua, bera bezain ahul den glotokronologiaren lagun, maileguak identifikatzeko edo kognatutzat jotzen direnen zehaztasun semantikoaren axola handirik ez duena, azterketa morfologiko okerrekin eta sasiko forma anitzekin hornitua (Campbell 1988, Greenberg 1987ri buruz, ap. Lakarra 573; itzulpena nirea).

Ez zaie axola “xehetasunetan” okertzea: kasualitatezko antzekotasunen eta identifikatu ez dituzten maileguen ordainetan, espero dute hainbat kognatu asmatzea.²³ Hori al da metodoa, itsuka asmatzen denarekin okerrak berdintzea?

Euren ustez, bai: bidea urratu besterik ez omen dute egiten, “xehetasunak” egiaztatzea geroko lana izango delakoan. Zeren **sailkapena** dute helburu, **sailkapen** hutsa. **Azalpena** da, ordea, diakronistek bilatzen dutena:

Demagun esaten dugula, Greenbergekin bat etorririk, erlazio genetikoak frogatzeko ez dugula inolako berreraiketarik behar; orduan galdetu behar diogu geure buruari zertarako balio duen gure sailkapen genetikoak. Ziur nago hizkuntzalari historiko askorentzat sailkapenaren balioa honetan datzala, alegia: familiako hizkuntzen historiak ezagutzen laguntzen diguten neurrian. (...) baliagarri izateko, ahaidetasun hipotesi batek emankorra izan behar du... (Thomason 1993 ap. Lakarra 576; itzulpena nirea).

Zergatik jokatzen dute halako ziurtasunarekin? Azpian honako aurreiritzi hau bide dago: giza-hizkuntza guztiak bakar batetik datozke (monogenesia), edo gutxi batzuetatik gehienez ere (poligenesi txikia). Beraz, EGIA baten bila ari direnez, “xehetasunak” gorabehera, azken batean beti asmatuko dutelakoan daude. Hala ere, hori da demostratu behar dutena (*quod erat demonstrandum*): euren aurreiritzia egia denentz.

2.4.3.1. Makrokonparazioa euskaraz

Makrokonparatisten erronketako bat da euskara bezalako hizkuntza isolatuak “desisolatzea” eta eratu dituzten familietako batean sartzea. Euskararekin batera, buruxaski izeneko hizkuntza isolatua (Pakistan eta Kaxmira iparraldekoa) boladan egon zen duela urte gutxi batzuk makrokonparatisten artean eta, ondorioz, familia denekaukasoarrean sartu nahi izan zuten batzuek, bestek “Karasuk” delakoan, bestek “Indohititera” izenekoan, bestek IEren adarrik zaharrena dela proposatu zuten, etab. (datuak ingelesezko *Wikipedia*-tik); hala eta guztiz ere, egun oraindik ere hizkuntza isolatutzat dute adituek.

Euskara makrofamilia batean sartzeko saiorik zabalduena DENE KAUKASOARRA da (Bengston & Ruhlen 1991): Na-Dene Ipar Amerikako hizkuntz taldea (navajoera dateke ezagunena) Kaukasoko iparraldeko hizkuntz taldearekin, sino-tibetar hizkuntzekin, Jenisei-ko hizkuntzekin (Siberia), buruxaskiarekin eta euskararekin lotzeko saioa da. Saioak halako entzute bat lortu du adituak ez direnen artean eta, hortaz, oso sarri agertzen zaigu euskararekin espekulatzer emanak direnen baieztapenen lagun. Hala eta guztiz ere, makrokonparazio lan guztietan bezala, guk mendera ditzakegun datuak — euskararenak— okerrak dira, edo oker erabilia daude (“bongo-bongo” erara):

- existitzen ez diren hitzak: *gor* ‘okela’, *zaki* ‘hezurra’ (*bernazaki*-tik), *zaro* ‘gaua’ (*onenzaro*-tik)
- gaizki itzultitakoak: *bortz* ‘eskua’ (Lakarraren **bor-tz* > *bortz* > *bost* eta **(h)an-bor* > *hamar* etimologietatik?), *atal* ‘mienbroa’ (*gorputz-atalak*-tik), *maño* ‘maskulinoa’ (egiatan ‘mando txikia’)
- maileguak: *azeri*, *xahu*, *zuku*, *horma*...
- erdal kideak euskal hitzen orde: *marrano*, *becerro*
- onomatopeiak edo hitz adierazgarri argiak: *pinpirin*, *mara-mara*, *tu*...
- nolnahi zatitutako hitzak: (*a*)*dar*, (*a*)*din*, (*han*)*di*, (*he*)*gal*, *bu(lar)*, (*b*)*izka(r)*²⁴

²³ Hemendik aurrerakoa Ruhlen 1994ko lehen atal teorikoaren irakurketak iradokitakoa da, alegia, Merritt Ruhlen, *On the Origin of Languages*, Stanford Univ. Press, Stanford, California.

²⁴ Parentesi artean doana, hitzari konparakizun izateko “kentzen” diotena da.

BIBLIOGRAFIA [egitasmoan dagoenaz gainerakoa]

- de Hoz, J., 2001 [1999], “Algunas reflexiones sobre fronteras étnicas y lingüísticas”. L. Berrocal-Rangel & P. Gardes, *Entre Celtas e Iberos. Las poblaciones protohistóricas de las Galias e Hispania*, Madril: 77-88.
- Igoa, J. M., “Lenguaje humano y comunicación animal”. R. Pellón, *Cognición comparada*, Madril: UNED (itxuraz, argitaratu gabe dago oraindik, baina *Academia.edu*-n aurki daiteke).
- Lafon, René, 1999 [1975], “La langue basque”, in Haritschelhar, J & P. Charriton (arg.), *Vasconiana. Recueil d'articles de René Lafon*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A., 1996c, “Sobre el Europeo Antiguo y la reconstrucción del Protovasco”, *ASJU* 30-1: 1-70.
- , 1999, “Ná-De-Ná”, *Uztaro* 31: 15-84.
- MacLarnon, Ann, 2012, “The anatomical and physiological basis of human speech production: adaptations and exaptations”. M. Tallerman and K. R. Gibson, *The Oxford Handbook of Language Evolution*, Oxford: Oxford University Press.
- Martínez Mendizabal, Ignacio, 2004, “Nuevas evidencias sobre el origen de la mente simbólica”, *Ars medica. Revista de humanidades* 3-1: 159-161.
- Mitxelena, Koldo, 1968, “L'euscaro-caucasien”. A. Martinet, *Le langage*, Paris: Gallimard.
- Nichols, Joana, 2012, “Monogenesis or polygenesis: a single ancestral language for all humanity?” M. Tallerman & K. R. Gibson, *The Oxford Handbook of Language Evolution*, Oxford: Oxford University Press.
- Ringe, Don, 2009, “The linguistic diversity of aboriginal Europe”. M. Liberman, *Language Log* <<http://languagelog.ldc.upenn.edu/nll/?p=980>>.
- Rodríguez Ramos, Jesús, 2005, “¿Están genéticamente emparentados el íbero y el vasco? El problema de los ‘descifradores mágicos’”, <<http://www.celtiberia.net/es/biblioteca/?id=1584&cadena=escritura%20iberica>>.
- Ruhlen, Merritt, 1994, *On the Origin of Languages*. Stanford, California: Stanford Univ. Press.
- Semino, O., Ch. Magri, G. Benuzzi, A. A. Lin, et al., 2004, "Origin, Diffusion, and Differentiation of Y-Chromosome Haplogroups E and J: Inferences on the Neolithization of Europe and Later Migratory Events in the Mediterranean Area", *American Journal of Human Genetics* 74: 1023-1034.
- Tovar, Antonio, et al, 1961, “El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones del vascuence”, *BAP* 17, 249-281.
- Trask, L., 1996, *Historical Linguistics*. London/New York: Arnold.
- Ugalde, Martin, 2004 (1997), *Nueva síntesis de la historia del País Vasco*. Donostia: Ttartalo.